

## Alurr taldea, Beasainen gaur

Ostadar taldearekin  
batera ariko da ▶ 6



# Euskal presoen aldeko ekitaldi ugari deitu dituzte biharko

**DEIAK** ▶ Alegian, Anoetan, Ibarren, Leitzan eta Villabona-Aiztondon manifestazioak izango dira

**GREBA** ▶ Hileroko ohiko bilkurak beste zazpi herritan; eskualdeko batzuk gose greban Arantzazun ▶ 4,5



## Zerkausi funtzionala eta irekia aurkeztu dute

**TOLOSA** ▶ Atzo aurkeztu zuten udaletxean Zerkausia berritze-ko proiektua. Eraikin funtzionala eta herriari irekia izatea nahi dutela azaldu zuten Jokin Bildarratz alkateak eta Juan Jose Gurrutxaga arkitektoak. Lanak 2005eko irailean hasiko dituzte. Itxura ez da asko aldatuko. Hitzaldiak eta kontzertuak egiteko

gunea izango du. Sarrerak erraztuko dituzte pasabide batzuk jarritz. Goiko solairuari garrantzi handia eman nahi diote eta igogailu bat jarriko dute horretarako. Herria inguratzen zuen harresia bistaratuko dute. Azkenik, azpialdeko gunea batelen biltokia izateko egokituko dute. **EDURNE AYUSO** ▶ 2

**LEITZA** ▶

## Gaur, urteko azken batzarra udaletxean

Bi ordenantza berri eta mozioak dituzte eztabaidagai ▶ 7

**ALEGIA** ▶



O.ESKITXABEL

## Martxa berria Kirol Kultur Etxean

Funtzionamendua aldatu egin da; izena eman daiteke ▶ 5

**VILLABONA-ZIZURKIL** ▶

## Bihar, Urte Zaharreko krosa ▶ 6

## POLITIKA ▶

**Andoni Iturzaetak dimititu egin du GAko idazkaritzan**

Andoni Iturzaeta tolosarrak Gazte Abertzaleak-eko idazkari nagusiaren kargua utzi berri du. Iturzaetak adierazi duenez, dimititzeko arrazoiak erabat pertsonalak izan dira. Ibon Usandizagak hartu du Eusko Alkartasunako erakunde gaztearen idazkari kargua. Iturzaeta EAko zinegotzia da Tolosako Udalean, Kultura eta Festa Batzordeko burua.

## XAKEA ▶

**Erregetako Xake Txapelketan parte hartzeko**

Aurrera elkarrekin urtero urtarrilaren 6an J.A. Insaustiren oroimenez antolatzen duen Erregetako Xake Txapelketan parte hartzeko aukera dute herritarrek. Elkarrekin egoitzan izango da, 10:00etan hasita, eta bost minutuko partidetara jokatu dute parte-hartzaileek. Horretarako, hasiera ordua baino lehenxeago elkartera agertu behar dute.

## ZINE-KLUBA ▶

**'Las invasiones barbaras' filma gaur Leidorren**

Osteguneroko zine-klubeko saioen harira, Denys Arcand zuzendariaren *Las invasiones barbaras* filma eskainiko dute gaur, 21:30ean hasita, Leidor zinema antzokian. Valladolideko zinema jaialdian ikus-entzuleen saria lortu zuen 2003an, eta urte berean, Canneseko zinema jaialdian emakumezko bigarren aktore onenari eta gidoi onenari sariak lortu zituen.

## GIZARTEA ▶

**Urte Zaharreko festa bihar, Irazkiren eskutik**

Irazki elkarte kulturantzak Urte Zaharreko festa antolatu du biharko. 16:00etan txorimalo erakusketa izango da Trianguloan; 23:30ean txorimalo horiei buruzko testamentua irakurriko dute Abastos plazan eta gaurdian txorimaloak erreko dituzte Belaten. Ondoren, festa eta musika izango da Abastosen; sarrera doakoa izango da herritar guztientzat.

## GAZTERIA ▶

**Gabonetako opari tailerra gaur, Gazte Astean**

Tolosako Udaleko Gazteria departamentuak antolatuta hilaren 27az geroztik herrian egiten ari diren I. Gazte Astearen harira, Gabonetako opari tailerra izango da gaur, 17:00etatik aurrera, Kultur Etxean. Antolatzaileek esandakoaren arabera, 13 eta 17 urte bitartekoek har dezakete parte bertan. Ekimen horrek emango dio bukaera aurtengo Gazte Asteari.

## HIRIGINTZA ▶

# Zerkausia eraikin funtzionala eta irekia izatea nahi dute

Zerkausiko eraberritze lanak 2005eko irailean hasi nahi ditu Tolosako Udalak

## EDURNE AYUSO

Tolosako Zerkausia herriko eraikinik esanguratsunetakoa eta irudirik ezagunenetakoa denik ezin da ukatu. Horregatik hain zuzen ere, Udalak, proiektu berezi bat jarri du abian gune berezi hori eraberritzeko. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Juan Jose Gurrutxaga udal arkitektoak atzo aurkeztu dute Zerkausia birmoldatzeko gauzatu duten aurreproiektua.

Jokin Bildarratz alkateak adierazi duenez «Zerkausia oso esanguratsua da Tolosarako. Eta horren esanguratsua den irizpidetik, hainbat gauza zaindu nahi izan ditugu. Batez ere, herritarren parte-hartzea eta hauen iritzia izan dugu kontuan». Beraz, aurreproiektua gauzatzekoan, herritarren iritzia izan dute oinarritzat. Zerkausia jendearen beharrei erantzuneko dien eraikin funtzionala izatea nahi dute. Ho-



Aurreproiektuaren aurkezpena: Jokin Bildarratz, Juan Jose Gurrutxaga eta arkitekto laguntzailea. E. AYUSO

rregatik, lehenik eta behin, zein funtzio izango dituen erabaki dute.

Herritarren iritzia ezagutzeko, inkesta bat egin zuten. Inkesta hauek ez zuten erantzun oso zabala izan, guztira 200 lagun inguruk baino ez zuten bete eta. Dena dela, herritar hauek batzorde bat eratu zuten eta batzordeak ezarritako irizpideak erabakiorrak izan dira Zerkausiaren proiektua gauzatzeko. Azken batean, herritar guztiei irekita egongo den gune bat izatea da du Udalak. Gune pribilegiatua izan dena berreskuratu eta modu xume batean birmoldatu herritarren esku jarri nahi dute Zerkausia.

**Zerkausiaren historia**

Juan Jose Gurrutxaga arkitektoak adierazi duenez, proiektua egiterakoan «Zerkausiaren historia eta bere bilakaera» aztertuko dute. Eraikinaren ezaugarri historikoei eutsi nahi izan die, baina kontserbadoregia izan gabe. Zerkausiaren jatorria XVIII. mendeko amaieran kokatu behar da. Garai hartan, Gaztelako atea zegoen lekuan elkartzen ziren azoka egiteko. 1785ean erabaki zuten azoka erosoago egiteko estalpe bat eraikitzea. Horrela, pittinka-pittinka azoka gunea zabaltzen joan zen. Eraikinak historian zehar aldaketak izan ditu, baina nabarmenenak, Alejandro

Mujika eta Guillermo Izagirre arkitektoek eragindakoak dira. Mujikak 1898an Tolosa babesten zuen harresiaren gainean eraikiko zen Zerkausiaren proiektua gauzatu zuen. Eraikin simple eta oso argitsua zen garai hartan. 1927an berriz, Izagirre arkitektoak alketak egin zituen. Porlana modan zegoen garaia izaki, porlanezko formak gehitu zizkion Zerkausiako erakinari.

**Eraikin berria**

Aurrikuspenak betez gero, 2005eko iraileko hasi nahi dituzte Zerkausia berritzeko lanak. Baina horretarako, beharrezkoa izango da behin-betiko

proiektua gauzatu eta onartzea.

Eraikinaren itxura ez da asko aldatuko. Orain bezala, bi solairu izango ditu. Azken batean, adin guztietako herritarrek biltzeko gune eroso bat izango da. Horretarako, beharrezkoak diren ur eta argi instalakuntza guztiak ezarriko dira bertan. Gaur egungo merkatuaz gain, hiltzaldiak, kontzertuak eta halakoak eskaintzeko gunea ere izango da. Herritarrek bertara iristeko arazorik izan ez dezaten, sarrerak erraztuko dira. Triangulo plazatik eta Solana eta Zumalakarregi kaleetatik pasabide batzuk ezarriko dira. Goiko solairura igotzeko beirazko igogailu bat ezarriko da. Igogailuak egunerokotasunaren parte direnez, hori ere bistan egotea nahi dutelako. Bigarren solairuari garrantzia berezia eman nahi diote. Garai batean, herritarrek asko erabiltzen zuten gune zen eta gerora ere, herritarrek erabiltzea nahi dute.

Zerkausia eraberritzen denean, eraikinak historian zehar izan dituen eraginak islaturik ikusiko dira. Hala nola, garai batean Tolosa inguratzen zuen harresia ikusi ahal izateko kristalezko pasabide txiki bat ezarriko da. Gaur pasabidea argiztaturik egongo da gainera. Bestalde, Alejandro Mujika eta Guillermo Izagirre arkitektoek bere garaiekin erakinean egindako lana zeinu berezi batzuen bidez adieraziko da. Hala bisitariak herriko historia ikasteko aukera izango dute.

Zerkausiaren azpialdeko gunean, azkenaldian Oria ibaian horrenbestetan ikusten ditugun batelentzat biltoki berezi bat egokituko da. Zerkausia beraz, lehenaldia eta gaur eguneko beharrak uztartuko dituen eraikina izango da aurrerantz.

**GELTOKI  
TABERNA**  
Urte zaharreko  
afaria  
Zatoz  
urte zaharra  
gurekin  
amaitzera  
Izen-ematea:  
943118439 • 647805036

ATLETISMOA ▶

# Tolosa CF-ko atletek sasoiko ekin diote denboraldi berriari

Pista Estaliko Gipuzkoako Txapelketan sei domina lortu dituzte, markak hobetuz

IRATXE ETXEBESTE

Tolosa CF-ko kadete, jubencil eta junior mailako kirolariak emaitza onekin hasi dute denboraldia. Izan ere, orain bi aste Donostian izandako Pista Estaliko Gipuzkoako Txapelketan sei domina lortu dituzte guztira: urrezko lau eta zilarrezko bi. Gainera, Ion Ormazabalek Espainiako Txapelketan parte hartzeko gutxieneko marka lortu du, eta horregatik guztia-gatik «oso pozik» dira atletak eta haien ordezkariek, HIRZARI azaldu diotenez.

Junior mailan, urrezko domina bana lortu zuten Amaia Jauregik eta Asier Landak. Jauregik 1.02.17ko denbora behar izan zuen 400 metroko proba hasi eta amaitzeko; era berean, pista estaliko ordura arteko denbora berdindu zuen denboraldiko bere lehen proban. Landak 800 metrokoan lortu zuen urrea, 2.09ko denborarekin, bere marka hobetuz.

Jubencil mailan, erraz lortu zuen urrea Ion Ormazabalek 14.75 metroko jaurtiketarekin. Ez zuen bere marka hobetu, aurreko astean 14,95 metroko marka egin zuelako; hala ere, eskuratua du jada Espainiako Txapelketan jarduteko txartela. «Denboraldia oso ondo hasi du, eta gehiago hobetuko duelakoan gaude», esan dute Tolosa CF-ko entrenatzaileek.

Maila berean aritu ziren Amaia Segurola eta Oihane Vazquez ere. Zilarrezko domina bana lortu zuten haien marka erraz hautsiz, eta, hala, Espai-



Sasoiko ekin diote denboraldi berriari Tolosa CF-koek, Gipuzkoako Txapelketan sei domina lortuta. HITZA

niako Txapelketan parte hartzeko gutxieneko markatik oso hurbil geratu dira. Segurola bigarren sailkatu zen 400 metroan 1.02.94ko denborarekin; sei ehuneko aldearekin eskuratu zuen aurkariak urrea. Vazquezek, berriz, 800 metrokoan lortu zuen zilarra 2.25.94, eginda. Jon Saizar laugarren izan zen 400 metroan bere marka hobetuz 55.24ko denborarekin, eta Iker Albisu bosgarren sailkatu zen 800 metroan. Bestalde, Asier Aierzak ez zuen zortetik izan 60 metro hesietan, lehenengo zihoala hesi bat jo eta aurrera segitu ezinik geratu zelako.

Kadete mailan Thiago Pereirak lortu zuen domina bakarra 600 metroko proban. «Karrera taktiko bati esker, erraz nagusitu zen azken metroetan». Nesketan, laugarren heldu zen Maialen Lopez eta seigarren

Maria Bonilla. Pisu jaurtiketan, Lide Mendikutek laugarren bukatu zuen, eta Eli Ferrero bosgarren izan zen 60 metroan.

## Gipuzkoako selekzioarekin

Ion Ormazabalek, Amaia Segurolak, Oihane Vazquezek eta Asier Aierzak Gipuzkoako Selekzioarekin hartu dute parte aurreko asteburuan, 17 urte azpiko selekzio arteko proban. «Oso ona izan da gure atleten partaidetza; Ormazabalek eta Segurolak irabazi egin zituzten zegozkien probak, pisua eta 400 metrokoa, alegia, Aierzak bigarren postua eskuratu zuen 60 metro hesietan eta Vazquez hirugarren sailkatu zen 800 metroko proban».

Bestalde, eta krosari dagokionean, hilaren 19an Azpeitian izan zen krosean Tolosaldeko ordezkari askok hartu zu-

ten parte, bai federatuetan bai eskolarteko probetan. Thiago Pereira eta Asier Landa hirugarren izan ziren haien kategorietan, Izaskun Zubeldia lehen izan zen beteranoetan eta helduetan oso ongi aritu ziren Lander Egia, bere lehenengo krosean, eta Iker Manso.

Gaske mailetan, Tolosaldeko eskolarteko kirolarien partaidetza handia izan zen oso, «nahiz eta eguraldia aproposena ez izan», esan dute Tolosa CF-ko ordezkariak. Infantiletan aurrealdean ibili ziren Ernioabea Tamara Lozano, lehen postua lortuz, eta Hirukideko Jon Etxaide eta Maria Lopez; hirugarren sailkatu ziren biak, eta alebinetan bigarren izan zen Samaniego-Orixeko Unai Arroyo. «Hala ere, Azpeitiako proban parte hartu zuten gazte guztien saiakera txalotu beharra dago», esan dute.

GABONAK ▶

## Alde Zaharreko 112 denda, kanpaina berera lotuta

Hiritako komertzioa bultzatu nahi dute eta herritarrei kanpaina erakargarria eskaini

I. ETXEBESTE

Erretengibelen laguntzarekin, Tolosako Alde Zaharreko 112 dendak kanpaina berria abiarazi dute. Gabonetako erosketak herrian egitea bultzatzeko. Urtero ekimen bera izan ez dadin, aurtan ez dute iazko erakusleho erraldoia prestatu, eta horren lekuan, bezeroen artean 3.000 euro eta beherapen txartelak zozketatzea erabaki dute. Dendari bakoitzak 30na euro inguru eman ditu, eta baita beherapen txartelak ere.

Alde Zaharreko dendaren batean erosketa egiteagatik txartel bat ematen diote dendariak bezeroari: beherapeneko edota 3.000 euroko zozketakoa. Beherapeneko urtarillaren 6a baino lehen erabili behar da, eta dirua egokitzzen zaionak parte hartu duten dendetan xahutu beharko ditu 3.000 euro horiek hiruzpalau egunen buruan. Urtarrilaren 7an egingo dute zozketa, Erretengibele Plaza Zaharrean duen bulegoan.

Kanpainaren helburua eskualdeko jendearentzat kanpaina erakargarria sortzea eta dendariak elkartzea da. Izan ere, modu horretara hiri barruko komertzioa bultzatzen da, «gune komertzial handien aurka borrokatzea errazagoa izanik».

## iragarki laburrak ▶



Laskorain, 3 TOLOSA

### ETXEBIZITZAK

**Alegia.** Etxebizitza berriak bi eta hiru logelakoak. Mandio. 669 87 19 09.  
**Asteasu.** 2 solairu, 3 logela, 2 bainu, sukalde-sala ekipatua eta 50 m<sup>2</sup>-ko terraza.  
**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldea, igogailua, 12 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta garaje marrarekin.

**Berrobi.** 90 m<sup>2</sup>. 41.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.  
**Berrobi.** 70 m<sup>2</sup>. Altzariz hornitua. 2 logela, berogailua, teilatu berria, fatxada pintatu berria. 24.800.000 pezeta.  
**Ibarra.** Maestro Guridi. Bizitzera sartzeko, 3 logela, eguzkitsua. Mandio. 669 87 19 09.  
**Ibarra.** Atikoa, terraza 40 m<sup>2</sup>, etxebizitza polita eta garaje ibixirekin.  
**Ordizia.** Etxebizitza berriak, familia bakarrekoak. Eraikitako azalera: 242 m<sup>2</sup>. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Santa Klaran 111 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai, 4 logela, egongela handia 25 m<sup>2</sup>-koa, igogailuarekin. Mandio. 669 87 19 09.

**Tolosa.** Korreo kalean etxebizitza batzuk, 70 m<sup>2</sup>-ko duplexa salgai. 15 m<sup>2</sup>-ko terrazarekin, teilatu berriak, berogailuarekin. 26.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Korreo kalea. Duplex. 26.000.000 - 28.800.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Larramendi kalean 65 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, sukaldea altzariz hornitua, kanpo aldera begira, 2 logela, igogailua eta trastelekuak. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Foru etorbidean, leku hoberenean, erabat kanpo aldera, atikoa, 85 m<sup>2</sup> + 50 m<sup>2</sup>-ko terraza. Bista ederra. Sukaldea, 3 gela, egongela, bainua, trasteroa,

berogailua eta igogailuarekin. 68.500.000 pta. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Iurre auzoan. 33 m<sup>2</sup>-ko txokoa, 10.000.000 pta, tartelantlan.  
**Tolosa.** Amaro auzoan, etxebizitza salgai 80 m<sup>2</sup>-rekin, igogailuarekin, 37.500.000 - 40.000.000 pta. Mandio. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Larramendi. 90 m<sup>2</sup>, 3 logela, 2 bainugela, egongela handia, garajea 2 autorentzat. 669 87 19 09.  
**Tolosaldea.** Etxebizitza berriak. 1 eta 2 logela. Garajea marrarekin.  
**NEGOZIOAK**  
**Ileapaindegia.** Ileapaindegia alokatzeko. 90 m<sup>2</sup>. Guztiz diseinatua.

### LOKALAK

**Tolosa.** Nafarroa etorbidean 71 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. 669 87 19 09.  
**Tolosa.** Leidor zinema inguruan garaje marra alokairuan.  
**Tolosa.** Errementari kalean lokal komertziala alokairuan. 70.000 pta.  
**Tolosa.** 428 m<sup>2</sup>-ko pabilioi berria, ate bikoitzarekin eta sardibe egokikoa, saihesbide ondoan.  
**Tolosa.** Lokalak salgai, Laskorain kalean, Rondilla kalean, Errementari kalean, Triangulean eta Nafarroa etorbidean. Mandio. 669 87 19 09.  
**Villabona.** Lokal berria, 35 m<sup>2</sup>, sukaldez hornitua, terrazarekin. 16.000.000 pta. 669 87 19 09.

GIZARTEA ▶

# Manifestazioak deitu dituzte bihar bi eskualdeetan presoak Euskal Herrira ekartzeko

Dispersioa eta presoan egoera salatzen Ibarra, Villabona-Aiztondon, Leitzan, Alegian eta Anoetan manifestazioetan parte hartzeko deia egin diete herritarrei



Ibarra Herri Ekimenak udalbesan alzo egindako prentsaurrekoan manifestazioa jatzeko deia egin zion herritarri. © IBERRARRE

INGO TERRADILLOS  
IMANOL GARCIA

Bihar, hilabeteko azken ostira izanik ohiko bilurak izango dira eskualdeko herritarren Euskal Presoak Euskal Herrira lelopean. Baina horretaz gain, Ibarra, Leitzan, Villabona-Aiztondon, Anoetan eta Alegian manifestazioetarako deialdia zabaldtu dute. Ibarra, ohiko kontzentrazioaren ostean manifestazioa deia egin zuten atzoko prentsaurrekoan Ibarra Herri Ekimenak Presoen eskubideen defentsan, dispersioaren aur-


ka izan ere, «Espainako gobernuak izan duen errolekoak ez du espere politikan aldaketarik ekarri, ezta ekarri ere arike laburrean», adierazi dute Herri Ekimenek. Deia manifestazio honen bidez, Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko eta Jon Mundelegiako preso ibartarren egoera sailatu nahi dute: «Batek kartelak oso urriti egoteak suposatzen duenagatik eta besteak legedi antiterroristako lehenengo gradua aplikatuta dute hitz ere guzuzapiko egoeran daudela esan nahi du honak, ikasaketa imberbestariek ezin burutu gabe, astero soilik

bi gutun bidai ditzaizkete, aurrerantz aurreratu izanik asteburuetan egiteko ukazioa zenbat kasutan, hogei ordu 12 m<sup>2</sup>-ko zelidan egon beharra, 10 lagunentzako biasta mugatua eta etengabe mixelak dituzte-lari besteak beste». Xepia ekartze, Senoi elkar-tza, Ibarrako Zaldunaren Taldea, Alurr dantza taldea, Ibarra Gazteak, Subegeti elkar-tza, Ibarra Bai Euskal Herriari, Eneko Artzaren lagunak, Hartzetan Raju mendit elkartea eta Uta platalormaren atxikimendua jaso dute ekimenekoekin zuten helburua bete-

eta ekimen herritokio, anitza eta zahala izatea espero dutela adierazi dute. Manifestazio bihar 19:00etan aterako da Ibarra plaza. Villabona-Aiztondo Villabona-Amasa, Zimurhill, Adina, Larrail eta Alkizako udaliek batekin banda kale-ratu dute dispersioaren aurka eta manifestaldia deitu dute bihar arratsalderako. «Dispersioaren eraginez euren etxe-tatik urrun dauden gizon eta emakumeak gogora ekarri nahi ditugu, are eta gehiago

- DEIALDIK BIHAR ▶**
- IBARRA**  
19:00. Herriko plazatik. Zuzarkitgo Jose Arregi plazara.
- VILLABONA-AIZTONDO**  
19:00. Villabona plaza. Zuzarkitgo Jose Arregi plazara.
- ALEGIA**  
19:00. Herriko plazatik.
- ANOETA**  
19:30. Ekiarteratzea.
- LEITZA**  
19:00. Herriko plazatik.
- OHIKO BILURAK ▶**  
Tolosaldeko. Tolosan 19:30ean eta Aduna, Altzo, Amekoia, Astasu, Lizartza eta Ikaiztegieta 20:00tan.

## Presoen alde, jan gabe



40 lagun inguru daude Arantzazu gose greba egiten. © IKA

Olaia Eskitzabel ▶ Guzuzapiko 40 lagun inguru aurkitzen dira pasa den igandean, abenduaren 26an, geroztik Arantzazuko euskal preso politikoan eskubideen defentsan eta euskal gatazkan konponetzen eragile aktibo izan daitezkeen gose greba hartzen. Horietako bost, eskualdekoak dira: Villabona eta Leitzan, tolosar bat, Ibarra bat eta Leizor bat. Bihar amaizuko dute gose greba. Baraualdiarekin «euskal preso politikoan kolektiboak eta erregruatu eta iheslari gurekin bat, Euskal Herriko gatazka politikaren konponketan izan behar duten lehen-tasunezko eta zuzeneko paper eta lana aldarrikatu nahi dugun, azaldu du Anartz Iur-bek, gose-greba egiten ari den bilabonatarak. «Euskal Herriko eragin behar dugun gure presoak Euskal Herrian izan dituzten eta beraien es-tatu politikoren defentsan, gaitatu da. Gose grebaliaren arteko giroa ezin hobea dela azaldu du Iurbelek. «Hemen jendea la-berako gogoz etorri da. Hala

istripuak eta kalteak asko kezkatzen gaituzte». Idatzaren beste puntu baten adierazten denez, «euskal presoak Euskal Herrian egoteak, herri honen bakea eta normalizazioaren eraginok lukeen besteak, dispersioaren atxakipean ematen diren beste hainbat eskubide urraketak ez gertatuzko modus izango izateko». Bestalde, isolamenduak neurri bezala kezkatzen ditu, presoari bere zigorra bete-az gain «beste zigor erantsi ba-tzak gehitzen zaizkiolako. Gau-zak honela Curtsen 3 urte be-tetzera doaz isolamenduan. Jon Tapiaren askatasuna ere eskatzen dute. «22 urte kar-tze-lan eramanik, bere zigorraren 3/4ak beteak izaki oraindik kartze-lan mantentzen dute. Le-

goaren arabera kalean behar lukeen». Euskal presoak Euskal Herria ekartzeko ida-tza izan behar duen bost uda-lek «gure ahalagintza egiteko konpromisoa berresten dugun eta herritar guztiak apatu ma-nifestazioan parte hartzea deitzen dituzte». Bestalde, bihar ere, Alegian manifestazioa egongo da, Eus-kal presoak Euskal Herrira le-lopean. Herriko plazatik atera-ko da manifestazioa, 19:00etan hasita. Leitzan manifestazioa egongo da 19:00etan, herriko plazatik hasita. Anoetan, Gaze Asanbidea, Anoetarrok, Auzo-lanen platalormak, AHT Gei-titx platalormak eta Anoeta-ko Segik elkarretarataza deitu dute, bihar 19:30ean Euskal presoak Euskal Herrira lelope-an.

ALEGIA ▶ KIROLA



Martutu eta hirugarren adinekoentzako gimnastika, aerobika eta karatea eskainiko dira momentuz. © IKA

# Ikastaroetan izen-ematea udaletxean

Kirol Kultur Etxearen funtzionamendu berria azaltzeaz gain, bi langile berrien aurkezpena egin zuten astelehenean

## OLAIA ESKITZABEL

Kirol eta Kultur Etxeari buruzko informazio bilera egin zuten pasa den astelehenean, abenduaren 27an. Bertan, herriko kirol talde gehien ordezka-riak, erabiltzaileak... izan ziren. Hasiko, Kirol Kultur Etxeko bi langile berrien aurkezpena egin zuten. Maria Karrera ariko da aiezain eta garbiketa lane-tan eta kultur dinamizatzaile gisa, berriz, Monika Arxutegi, Tolosarrak, biak. Langileen funtzionari buruz ere hitz egin zuten bileran. Kiroldegiko Ikastaroak Atango Pako Urrestarazuri eramaniko dira. Orain arte Kirol Kultur Etxe-aren kudeaketa eraman duen Kirol On eragile bihar, ostira-lan, amaizuko du kontratua. Au-terako begira, berriz, orain ateko kiroldegian eskaini dituzte

## Erabiltzaileei deialdia

Ikastaroak mantentzeko asmoa dute Aerobika, mantenu gim-nastika, hirugarren adineko pertsonentzako gimnastika eta karatea eskaintzako diruzte; es-kulua talerria ekarpen jateko asmoa ere azaldu zuten bileran. Hala ere, «eskaintza eta proposamen berriak jasotzeko sekta gaude eta jendeak ideia desberdinak egitea gustatuko litzazuke», azaldu du Hektor Kolbas kultur zuzendakaria. Apatutako ikastaroak, urta-riaren 10etik aurrera hasiko dira. Ikastaroen ordulegia Kirol On eragileak zehazten zuten orain arte; eta, aurrera begira, eta ahal den neurrian, «ordue-giak moldatzeko» sulera er-ortuko dela ere azaldu zuten. Horretarako, jendeak ordulegi-ekiera egitea ezinbestekoa da.

Ikastaroak mantentzeko asmoa dute Aerobika, mantenu gim-nastika, hirugarren adineko pertsonentzako gimnastika eta karatea eskaintzako diruzte; es-kulua talerria ekarpen jateko asmoa ere azaldu zuten bileran. Hala ere, «eskaintza eta proposamen berriak jasotzeko sekta gaude eta jendeak ideia desberdinak egitea gustatuko litzazuke», azaldu du Hektor Kolbas kultur zuzendakaria. Apatutako ikastaroak, urta-riaren 10etik aurrera hasiko dira. Ikastaroen ordulegia Kirol On eragileak zehazten zuten orain arte; eta, aurrera begira, eta ahal den neurrian, «ordue-giak moldatzeko» sulera er-ortuko dela ere azaldu zuten. Horretarako, jendeak ordulegi-ekiera egitea ezinbestekoa da.

**AZPEITIKO IV. SAN SILBESTREA**

**ESKOLARIK:** 10:30etatik 12:00etan 4.150 metro izango dira.

**KADETE ETA JUBENILAK:** 12:00etan 4.150 metro izango dira.

**BESTEAK:** 12:00etatik 3:30 metro izango dira.

**AURRENEKOENTZAT DIRU SARRAK IZANGO DIRA.**

**PARTEDE GUTZEN ARTEAN BIDAI TXARTELAK ZUZKATUKO DIRA.**

**Izen-ematea, 3 urrez:** Azpeitia, Azpeitia, Zumaia, Gedeiza, Zarautz, eta Oroako Kiroldegian. **HITZAKO** baldinotzen edo internet bidez: [www.hemikoss.com](http://www.hemikoss.com) (entzuleak, HT Zumaia telebista-ko da eta hori)

**Manifestazioa izila**

**URTE ZAHARREKO FESTA**

**IRAZKI KULTURANIZDUN ELKARTEA** antolatuta

**Ahenduak 31**

**16:00.** Txorimalo erakusketak Trianguluan

**23:00.** Testamenduen eraketa Belate pasealekuan

**00:30.** Musika festa Abastos plazan

Sarrera orain ▶ **Abasto izango da Tolosa gozatu eta geroztik.**

**Zatoz kanpaina honetako dendetara eta 3.000 euroko erosketarekin baten zozketan parte hartzeko aukera izango duzu. Horretaz gain, deskontu-errian beste 3.000 euro baliatu behar dituzte, 30 euroanako deskontua irabaz dezakezu.**

## IBARRA ▶ KULTURA



Ibarrako San Bartolome jaietan Alurr dantza taldeak eskainitako emanaldia. HITZA

## Alurr eta Beasaingo Ostadar elkaturik

Beasaingo Ostadar dantza taldearekin eskainiko du gaur emanaldi berezia musikari eta abeslariarekin batera

## IÑIGO TERRADILLOS

Gaur Ibarrako Alurr dantza taldeak emanaldi berezia izango du Beasaingo Usurbe antzokian 22:15ean.

Gonbidapena jaso zuen dantzaldi honetarako Ibarrako taldeak Beasaingo Ostadar dantza taldearekin eskutik, beraz, bi taldeak arituko dira taula gainean.

Eli Nosellas Alurr dantza taldeko arduradunaren arabera, «lehendabiziko aldia da, koreografia berriekin gabiltzanetik goierrin dantzatzeko dugula, eta kuriozosa da, izan ere, orain

10 urte edo Ostadar dantza taldekoak Ibarrara etortzen zireen dantza mota batzuk erakustera».

Saioak ordu eta erdiko iraupena izango du, eta Alurr-ek emango dituen hiru taldeek —gatzetxoena eta beteranokak barne— orubete inguruz ariko da dantzan. *Agurra, Bagabiga, Ibarrako baziren bazara, Kaxarranka, Uztai, Fandango, Balea, Errenkan, Suletino, Obalao, Banakoa eta Arin arina* eskainiko dituzte ibartarrek. Gainera, dantzariek gain, musikariak eta abeslariak ere izango dira Usurbe antzokian.

«Dantza tradizionala berrie-kin nahasteko era bat izaten dira saio berezi hauek», dio Eli Nosellasek. «Tolosan azaroan Tolosako Udaberri eta Villabonako Oinkari dantza taldeekin aritu ginen eta oso polita izan zen eta ikustera joaten direnei ere asko gustatzen zaizkie horrelako saioak».

«Kultura zabaldu, mantendu eta herriari erakusteko aukera ematen dute emanaldi hauek», dio dantza taldeko arduradunak, «eta udaletatik laguntza handiagoa jaso beharko genuke saio gehiago egitea posible izateko».

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶ KIROLA

## Urte Zaharreko krosa, bihar arratsaldean

Zunbeltz eta Urkamendi elkarteak antolatzen dute XXI. ediziora iritsi den proba herrikoia

## I. GARCIA

Zunbeltz eta Urkamendi elkarteak antolatuta eta bi herrietako udalek babestuta, bihar XXI. Villabona-Zizurkil Urte Zaharreko lasterketa egingo da. Probaren irteera Villabonako Zunbeltz elkarte partetik egingo da, arratsaldeko 16:30ean. Parte hartu nahi dutenek, orubete lehenago joan beharko dira izena ematera.

Lasterketa bi mailatan zati-tuta dago. Helduek (14 urte gorakoak) 7 kilometro egin behar dituzte, lau bira osatuz. Gazteen baitan, bi maila berreitzen dira. 10 urtetik 14era

bitartean, 3,5 kilometro burutu beharko dituzte, hau da, bi bira. Gazteenek, 10 urtetik beharokoe, 1,75 kilometro egin beharko dituzte, beraz, bira bat eman beharko diote ibilbideari.

Lasterketak irauten duen bitartean, hau da, ordu bat gutxi gora behera, Villabona eta Zizurkilgo Pasusenea guztiz itxirik egongo da ibilgailu guztientzat, auto, kamioi eta autobusentzat.

Aipatzekoa da lasterkariaren artean duen harrera ona lasterketa honek. Izan ere, aurreko edizioan 425 korrikalari aritu ziren Urte Zaharreko proba honetan.



## Azkeneko barre algarak

VILLABONA ▶ *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanaren azken emanaldia arrakastatsua izan zen. Olaederra kiroldegia atondutako eserleku guztiak bete ziren eta oso giro ona izan zen. Orain, Gorringo taldearen hurrengo antzezlanaren zain egon beharko du ikusleagoak, barre egiteko. ASIER ETXANIZ

hitza

# txokoa<sup>lagunen</sup>

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon  
o s a g a i a k  
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honekin  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

kanikak  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY  
KIROLAK

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero



## Goiz guztian zehar, ederki asko ibili ziren

**LEITZA** ▶ Atzo, 30 bat ume bildu ziren Karrapean goiza jostaketan pasatzeko gogo biziz eta halaxe egin ere. Aisialdiko hiru begiraleekin goiz guztian zehar askotariko ekintzak burutu zituzten: goiko aretoan

buztinezko irudiak egin ondoren, behera jaitsi eta jokutan ibili ziren, eta atzera, berriz ere goian, maskarak egiten aritu ziren, bakoitza bereari adi-adi. Gaur Aresokoen txanda izanen da, eta bihar berriz ere Leitzakoena. J. ASTIBIA

**LEITZA** ▶ UDALA

# Urteko azken batzarra dute udaletxean

Bi ordenantza berri eta mozioak dituzte eztabaidagai, besteak beste

**JAIONE ASTIBIA**

Gaur gauean, 21:00etatik aurrera, eginen dute urteko azkeneko batzarra udaletxean eta 13 puntu izanen dituzte mahai gainean.

Besteak beste, bi ordenantza onartzeko proposamenak eztabaidatuko dituzte. Bata, herriko eraikuntzen zaharberritze eta apainketa eta bestelako obrantzako diru laguntzei buruzkoa da, bertan Eraikuntza, instalazio eta obra gaineko zergari dagokionez, (EIOZ delakoa) onurak zenbatekoak izanen liratekeen ezarri nahi dituztelarik.

Eta bestea, Udalak enplegua sustatzeko asmoz, herrian kokatuko lirakeen industriei ordaindu beharko luketen EIOZ delakoaren hainbateko portzentaia bat diru laguntza modura emateko, oinarriak finka-

tzen dituen. Aurreko batzarrean mahai gainean gelditu zenez, kirol instalazioen kudeaketaren esleipenerako baldintza plikaz berriz ariko dira eta mendiko gaiei dagokionez, be-

rriz, bi egur loteren enkantesalmentak eskaintzarik jaso gabe gelditu direnez, balioen murrizpena onartuko dute, prozedurarekin jarraitzeko.

### Mozioak

Bi salaketa mozio ere jorratuko dituzte: Nafarroako Gobernuak euskalgintzako aurrekontuetan egin nahi duen murrizketa salatuz, Iparraldeko Euskara Mankomunitateak bere garaian plazaratu zuenarekin bat egitekoa; abenduaren 6an, bere seme presoak ikustera, Alcala-Mecora (Espainia) zihoala izandako auto istripuan hil zen Karnele Solagurenen heriotza salatuz, Larrain Herri Plataformak sartutakoa.

## BATZARRA ▶ ABENDUAK 30, 21:00.

### GAI-ZERRENDIA

1. Azken batzarreko akta onartzea.
2. Itzairerik eta Guratz loteen %10 eta %20eko beherapena onartzeko proposamena.
3. Kirol instalazioen kudeaketaren esleipena.
4. 2005erako hiri-lurren balioaren igoeraren gaineko zergaren aldaketa.
5. Leitzako herriko eraikuntzen zaharberritze eta bestelako obrantzako diru laguntzei buruzko Ordenantza.

6. Enplegua sustatzeko Udalaren Ordenantza.
7. Hirigintza Planaren aldaketa puntualak behin behingoz onartzea.
8. Aurrekontuan aldaketak.
9. Partikula baten lur trukaketa proposamena.
10. Iparraldeko euskara mankomunitatearen salaketa.
11. Larrain Herri Plataformaren salaketa-mozioa.
12. Oharrak eta berriemateak.
13. Eskariak eta galderak izango dira.

**LEITZA** ▶

## Euskal presoek aldeko hainbat ekitaldi daude iragarrita

Bihar arratsaldean, manifestazioa da; hilaren 5ean, afaria eta kontzentrazioa



Presoen irudiak kartzelan. J.A.

**J. ASTIBIA**

Urte Zahar, Urte Berri... hauen gisako egunak kontu zaharrak itxi eta berriak irekitzeko egunak izan ohi dira, asmoz behinik behin.

Baina hori ez dela horrela erakusten duten hainbat gertaera bizi izaten dira egun hauetan ere: euskal presoek eta beren senide eta lagunak bizi dutena, edota bizi arazten zaiena, kasu. Horrela bada, beste urte bat gehiagoz, horiek gogoan, hainbat ekimen burutu ohi dira euskal herrietan. Leitzan, deialdi zabalak egin du Presoen lagunak, bihar hilak 31, 19:00tan *Amnistia. Askatasuna* lelopean, plazatik aterako den herri manifestazioan parte hartzeko.

Eta, jada urte berrian, ilbeltzaren 5erako, berriz, elkarretaratzea antolatuko du plazan, 18:30etik aurrera *Euskal preso politikoak etxera! Amnistia eta askatasuna!* leloarekin.

Ondoren, 21:30 aldera, afaria izanen dute eskoletan. Bertara joateko txartelak Torrea tabernan daude salgai, ilbeltzaren 3 arte. Afari hau preso guztiei eta hauen senideei elkartasuna adierazteko bidetzat jotzen dute (partehartzeari esker, diru-laguntza, osasun laguntza eta babes juridikoa aurrera doaz), ziotelarik, eskualdekoak diren Zubieta, Goldaraz, Elizegi, Goikoetxea eta Igor Astibia presoak gogora ekarritz.

**TELEFONOAK** ▶

**LARRIALDIAK**

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**  
Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Amarozenko dispen.: 67 26 37  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20  
**Villabona-Aiztondo.**  
Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**GARRIAOK**

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Taxis: 67 04 20  
▶ Taxis (Leitza): 608 873016

**KOMUNIKABIDEAK**

▶ Galtzaundi: 65 50 04  
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32  
▶ Tipi ttapa ald.: 948 631888

**EUSKALTEGIAK**

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramale-AEK: 67 12 14  
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Azpiz. Amarozen 9 (Tolosa). 943 675 118  
Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aiz.** 687 41 00 22.  
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoeta.** 687 41 00 22  
anoeta@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitza.** 687 41 01 18.  
leitza@tolosaldeko-hitza.info

**iragarki laburrak** ▶

**LANA**

**Sukaldaria.** Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 691 933.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 30a, osteguna ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartasaketa, Adura, Abotzur, Aegia, Alkiza, Alzco, Amerieta,  
Anoeta, Bakarran, Beasain, Berastegi, Etxain, Herrialde, Itarra, Irura,  
Lumbil, Luchara, Lueta, Oñativia, Oñeta, Tolosa, Wildonra, Zuzaki  
besterik: Leizaldeko Euzkara Batordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurjaritza.  
Kultura Saila

943  
30 43 46

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

10

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA  
ARALARREN



Guardetxe: ez  
Albi: ez

Pagomari: bai

Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN  
ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Anoeta.** Dantza-sokarako antsegu. Edurka. 19:30.  
**Areso.** Haurrentzako ekitaldiak. 10:00-13:00.  
**Asteasu.** *Peter Pan (La gran aventura)* filma izango da Kultur Etxean 16:30ean.  
**Berastegi.** Futbito partidua, gazteak helduen aurka 18:30ean. Ondoren *lunch* Urepele elkartearen.  
**Berastegi.** Askaria Gaztainondon. 18:00.  
**Gaztelu.** Itzultzaileei buruz hitz egingo da KZgunean 16:00etatik 18:00etara.  
**Ibarra.** *Euriaren seme-alabak* bideoa. Kultur Etxean 11:00etan.  
**Irura.** *Irri makila* antzerkia. Zaharren biltokian 17:30ean  
**Irura.** Xare trinketea eta pala partidak frontoian.  
**Irura.** Ludoteka eta liburutegia irekita.  
**Tolosa.** Merkatu Txikia Kultur Etxean.  
**Tolosa.** Gabonetako Haur Parkea Beotibarren. 17:00etan euskaraokoa.  
**Tolosa.** *Las invasiones barbaras.* Zine-klub. Leidorren 21:30ean.

### KIROLAK

**Tolosa.** Eguberritako XXIII. Shanti Torneoa Berazubi kiroldegian. 9:30 Climaxvic A-Ixaso Honda (B), 10:15 Climaxvic B-Sendi Ekintza (B), 11:00 Climaxvic-Tigre txikiak (F-B), 11:45 Ugara-Montxi (F-B), 12:30 Negritas al ataque-Zumadi (F-B), 13:15 Tigre txikiak-Panterak (F-B), 14:00 Marrazoak-Laskorain (C), 15:00 Laier-Zuloaga txiki (C), 15:45 Fronton kafetegia-Diablos (C), 16:30 Lagun artea-Ugara (C), 17:15 Tornados-Fleming (C), 18:00 Marrazoak-Zuloaga txiki (C), 18:45 Laskorain-Laier (C).



Gurpilen gainean jolasean aritu ziren. I. ASENSIO



Pakon aritu beharrean, Berdura plazan aritu ziren hockeyen. I. ASENSIO

# Gazteak, gurpilen gainean

**TOLOSA ▶** Udaleko Gazteria Sailak antolatutako I. Gazte Astearen hockey erakusketa izan zuten atzo Berdura plazan; gaur, opari tailerra



Gaztetxo ugari elkartu zen Berdura plazan hockey-n aritzeko. INIGO ASENSIO

### ERREDAKZIOA

**P**ing-pong, merendola, futbola 3x3 eta funky-hip-hop tailerra izan zuten atzo arte Tolosako gazteek beraiei zuzendutako I. Astearen. Atzo berriz gurpilen gaineko eguna zuten Pakon, Santa Maria elizaren ondoko plazan, baina Berdura plazara pasatu zuten. *Skate* zen aktibitateetako bat, baina jenderik ez zen bildu eta hockey erakusketa bakarrik izan zuten.

Udaleko Gazteria Saila da I. Gazte Astearen antolatzailea, Gazte Topaguneko dinamizaziozaleekin eta kale hezitzaileekin batera. Zorionekoak dira azkenaldiak gazte tolosarrak. Kultur Etxeko Gazte Topagunea martxan jarri berri dute eta arrakasta handia dauka. Aste-buruero gazte asko elkartzeko bertan arratsalde, hainbat ekitaldi burutzeko. Eta orain gazte festa izan dute.

Astearekin bukatzeko, gaur Gabonetako opari tailerra izango dute 17:00etatik aurrera Kultur Etxean.

## ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



### ZORIONAK

**Joxe Aburuza (Bidania).**  
Urte askoan, orain bezala segi majo-majo. Sei ilobak.



### ZORIONAK

**Milagros Matxinea (Berastegi).**  
Gaur urteak. Zorionak eta ondo pasa Julen eta Bakarbioren partetik.



### ZORIONAK

**Joseba (Irura).** Gaur 10 urte. Zorionak eta muxu bat ebekoaren partetik.



### ZORIONAK EÑAUT

Aitaxo, amabito eta familia guztiaren partetik.

